


## OTAEGI-RI.



Eziñ arkitu det nik, adiskidea,  
 Bear dedan itzikan, kantatutzeko  
 Zure bizitz eder ta pakez betea.

Euskal-erriarentzat ziñan guztiya:  
 ¿Nork ez du gogoratzen euskal-lurrean  
 Zure kantu bikañen indar biziya?

Kantu ederrak dira zure kantuak:  
 Baña kantuak baño ederragoak  
 Ziran, oraindik, zure sentimentuak.

Bestela galde, galde Ondarrabiyan,  
 Nola itz onak eta egintz obeak  
 Zabalzen zenituen zeunden tokiyan:

¡A zeñen gozoa dan gogoratzea,  
 Gelditzen geranean lagun bat gabe,  
 Zala bera jaunaren maitatzallea!

¿Zêr da gure bizitza?... Itzala, kea:  
 Jayo, azi ta laster ill... ala nola  
 Jayo ta igartu oi dan kanpo-lorea.

Baña lorea emen gelditutzen da;  
 Gizona ez ordea: bere anima,  
 Jauna maitatu badu, Zeruratzen da.

Ara joango ziñan zu, lagun maitea:  
 ¿Nola ez, baldin beti bizi baziñan  
 Guadalupeko Amak ongi gordea?

Eta zure gorputza lurperatu da  
 Bere mende gozoan: Gurutzepean  
 Malkoz estalirikan ezkutatu da.

Eta ¡zér malko eder maitagarriyak!  
 ¡Zure ikaslechoai sortutakoak!  
 ¡Oek bai diradela gozagarriyak:  
 Eleizaren otoitzak t' aurren malkoak!

KARMELO ECHEGARAY-KOAK.

---

## ¡OTAEGI!



¡Otaegi ilda! diyo gaur Euskaldun-erriak, eta bi itz abek nere barenen oiarzun bat egiñik, erantzutendu isilik, bildurraz, gauza bat izan arren, nai ez degunian bezela.... ¡Ilda!

Gaurtik ez dituzu geiago kantatuko zure erriko umanten doaiyak, zenbait aldiz bezela; gaurtik zure ezañetako betiko irri ura banatu da sekulako; gaurtik ez degu adituko geiago, zuregandikan, zure biurts eder ayen irakurtza.

¡A, zer dan bizitza! Badakigu zer dan, askotan aditzen degu: bannan askoz obetoago ezagutzen da oraindikan, gure artetik lagun bat eramaten digunian eriotzak; ispillu baten antzera, onen aurrian nola ikusten geran, ala lagun baten eriotzan ikusten degu geren-geren iza-tea.

Euskalduna deritzaion zure erri naigarri onek maitatuko zaitu zuk maitatu izan zenduben bezela, eta zure oroitza beti argi eta garbi, ez da inoiz banatuko Euskeraren seme sayatuenen artetikan.

¡Jaunagan izan zaitzela!

FRANZISKO LOPEZ.